

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko otsailak 4 / IV. urtea / 113. zenbakia

Mendi langileak

Lapurdi eta Nafarroa Beherearen arteko muga guztiak kurrituak dituzte, goiti eta beheiti, zamaturik eta gaez. Kontrabandistak ziren, mendi eta gau langileak, eta zonalde osoan hamaika pasadizo eta komeria bizi-takoak dira. Batzuk ia mitiko bihurtzeraino. Horietako bi harrapatu genituen Donamariako Uxarrean: Inazio eta Santiago Inda. Etxean betidanik aditua zutenari jarraiki besterik ez zuten egin, eta orain, «jubilatua» jada, ez dute erreparorik garai haiek gogoratzeko. Ez baita sobera ohizkoa horrelakoak aditzea.

Zubian barna

BINGEN AMADOZ




Neguan ahobero

Neguan hotza egunero, halere batzu ahobero. Ihauteri aroan sartu gara oharkabeen. Negu gorrian egonda ere, hoztasunaren krudelkeria zertxobait epeldu eta zintzo izateari uzteko garaia heldu zaio gizakiari. Izotzak ekar lekiokkeen kaltea kontutan hartu gabe gizakia ausardia osoz agertzen zaigu batzutan eta beste animaliak ez bezala, hankasartze-arriskuari aurre egiten dio, zuhertasun handirik izan barik. Muxarrak ez luke nolana izango bere arbola-txokoa, jakinda oraindik hotza nagusi dugula. Gau-enarak modu berean, ez dira eguerdiko eguzkipean galduko leizetik kanpo, eta satorrek ez dute burua ateratzen elurren artean.

Gizakien artean, ordea, gauza xeble franko gertatzen da, Lopez Merino jaunak inongo lotsarik gabe Israelgo herria aipatu digu, jarraitzeko bidea, eredia, horixe dela esateko. Basamortuan baratzeak egiteko gauza den bezala, Israelgo estatuak, zoritxarrez, gatz eta ogia ukatzen die palestinarrei eta ur-gabeko basamortuetan bizitzera kondenatzen ditu. A ze eredia edonorentzat!

Sindikatu sozialistaren ize-nean bere idazkari nagusiak greba egitea gomendatzen zizun arestian. Boterearen eskutik jan eta edan eta bere babesean bizi izan denak sinestarazi nahi digu gauek goizera erabat aldatu dela. Atzoko beltzak ez dio berriz, sinetsgarritasunean lagun tzen inori hurrengo egunean.



ERAKUSKETAK

J.R. Elortza artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Pintzel Galerian, otsailaren 25a arte. Margolari honen lanak ikusteko ordutegia hauxe da: goizetan, 10.00etatik 13.30etara, eta arratsaldetan, 16.30etatik 20.00etara. Larunbat arratsaldetan eta igandetan itxita dago.

Asuncion Garcia margolaria-
ren erakusketa ikus daiteke Iruñean otsailaren 13a arte. Aurrezki Kutxa Muzikazaleak antolatuta, Rodezno Kontea kaleko aretoan dago ikusgai. Arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara dago zabalik lan egunetan, eta jai egunetan, berriz, 12.30etatik 14.00etara.

IKASTAROAK

Yoga, aretoko dantzak, eskulanak, jostura, masaia, pintura eta marrazkia, antzerkia, emakumeentzako autodefentsa eta bestelako ikastaroak antolatzen ditu Iruñeko Alde Zaharreko auzo elkartek. Izena emateko, Elkartek Aldapa kalean duen egoitzara joatea edo 21 25 26 telefonora deitzea besterik ez dago.

'Danza afro-caribeña' ikasi nahi dutenek Nafarroa Kirol Elkartek otsailaren emango duen ikastarora joatea besterik ez daukate. Hilabete osoa iraunen du, eta izena emateko, Elkartek Jarautza kalean duen aretoa jo behar da; bestela, 22 43 24 edo 22 98 20 telefonoetara deitu. Hori bai, arratsaldeko zazpiak eta bederatzia bitartean joatea eskatu dute antolatzaileek.

BESTELAKOAK

'Kobazulo magikoen ibilaldia' gaiari buruzko diapositiba emanaldia izango da gaur, ostirala, Nafarroa Kirol Elkartearen egoitzan, Jarautza kalean. Arratsaldeko zortzietan hasita, Antxon Iturrizak zuzenduko du.

Manolo Arozena, Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Euzkitze, Andoni Egaña eta Anjel Mari Penagarikano bertsolarien saioa izanen da bihar larunbata, otsailak 5, Arantzako pilotalekuan. Gaueko 22.30etan hasita, Patxi Larretxea izanen dute gaijartzai-
le.

MUSIKA

Su Ta Gar Eibarko musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, otsailak 5, Zubiriko Gau Txori dantzalekuan. Musika saioa goizaldeko ordu biak aldera hasiko da.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Iratirekin larrutan

Ur bizia, erreka bihurriak, sexualitatearen ikurtzat hartu ohi dira. Iratiko pagadietan sortzen den erreka hamaika amodio eta desio kontu gorde izan ditu udazkeneko orbeletan. Zenbatek ez dute Iratiko urtetan aseturako desio grinatsunarekin amets egin?

tean, hainbat nafarrek urtegi kirasdun haietara abiatzen ziren lehen hazia ixurtzera.


—Zenbat da?

—Mila duro.

Ordaindu eta mezara; ostiak jatera. Egun, zorionez, era horretako sexu jardunek ez dute edozein napar asetzen. Fran-

raiko putetxeak ditu nahiago, omen.

Eta ez hark bakarrik. Hainbat politikari eta sindikalista uraren moteltasun ordainduaren abonatuak dira. Eskuak patriketan, «Contra el paro lucha (?) obrera!» oihukatzen dute inoiz, bai eta poliziaren



Zenbat sei, hamalau, hamasei urteko Irati dago egun Euskal Herrian halako bizipen xamur baten fruitu?

Irati ibaiaren korranteek sordezaketen lizuntasunerako gogo eta urtegi batek moteltzen dituen uren arteko konparazio-nea, udazkeneko larru jotze grinatsu eta putetxeetako giroaren artekoa da. Garai ba-

kok inguratu zituen putetxe haiekin aski izan zen eskasiari aurre egiteko.

Institutoetatik atera berri diren gazteek, ordea, Irati, Ultzama edo Belagoako errekek eskaintzen dieten inguru paregabea dute nahiago. Uraren jarioak norberaren jarioa eragiten duelako omen. Aragon jaunak Frankoren ga-

aurka harrika ari direnei aurpegiratu ere. Hauek, guzti hauek, 'urtegi' izeneko putetxetako okel ustelaren zaletu sutsuak izan dira beti. Bertzeek Irati-
rekin larrutan jarraitzea dute/dugu nahiago. Itoitzen, Artozkin, uretan, ertzean, orbelean... plazerra, benetakoa, amaigabeko jarioakina delakotz.

ASTEKO PERTSONAIAK



Julian Retegi
Pilotaria



Jesus Aizpun
UPNko senatorea

Ustekabe galanta izan dugu aste honetan pilota munduan, eta honekin badira bi azken bi asteetan. Aurrekoan sorpresa Arretxe eta Titinek eman zuten Binakako Txapelketa irabaztean, eta oraingoan Retegik eman digu. Eskuz Banakako Txapelketan ez duela parte hartuko adieraztean. Belaunetan dituen arazoak direla medio, ezin dela behar bezain ongi prestatu eta entrenatu aipatu du. Julian Retegiri dagoeneko bost ebakuntza egin dizkiote belaunetan, eta gogor entrenatu edo partidu zailak jokatu ondoren barne isuriak izaten ditu. Hamabigarren txapela eskuratzeko asmoa zuen aurten Eratsungo pilotari handiak, baina asmoa besterik ez da izango. Orain, erabakitzeke dago oraindik txapelketaren sistema, aldaketak nahitanahiez izanen dira eta.

Euskara batuaren kontra gogor mintzatu da egunotan Aizpun UPNko presidentea. Esan zituenak ez dira berriak; nafarra eta espainola izatea gauza bera dela esan ondoren, euskara batua arma politiko hutsa dela esan zuen. Nafarroako ikastetxeetan erakusten duten euskara ez omen da herrialdean egiten den hizkuntza, batua baizik. «Ez dute Baztango euskara irakasten. ETBn entzuten dudana baizik. Batuaren kontra nago erabat, nafar hizkuntza galerazten ari delako; eta nire kultura nafarra da, ez batua». Gutxienez badakigu Euskal Telebista ikusten duela, baina berarentzat batuarekin Nafarroa EAerekin batzea besterik ez dute nahi, «eta hori ez da naturala. Bizkaitar batek eta nafar batek ez diote elkarri euskaraz ulertzen, erdaraz hitz egin behar dute».

AHAZTU GABE!

JARDUNALDIAK

'Kuba Leitzara' leloarekin, irla haren aldeko kanpaina jarri dute martxan Leitzaldean, bertako Kultur taldeak antolatuta. Honetaz gain, eta Kubako giroa eta ezaugarriak ezagutzeko, zenbait ekitaldi prestatu dituzte aste honetarako. Asteartean hasi ziren, eta igandera arte luzatuko dira. Gaur, ostirala, arratsaldeko zazpitan hasita 'Kuba, Mittoa?' izenburupean, mintzaldi bat izanen da Aurreran, Kuban egondako bi brigadistak eskainia. Bihar, berriz, 'Mojito gaua' izeneko festa antolatu dute Aurreran, gaueko hamaitketan hasita. Igandean, 'Gran ballet de la Habana' izeneko ariko da Leitzako pilotalekuan, 18.00etan. Bitartean, asteburu osoan, Kubari buruzko erakusketa zabalik izanen da, larunbatean arratsaldez eta igandean goizez. Leitzako Karrape irratia ere egunero eskainiko du programaren bat. Gaur, 'Zer diozu Kubaz' izenburupean, jendearen iritziak jasoko ditu. Ekitaldiez gain, materiala bildu nahi dute Kubara eramateko; xaboa, hortzetako pasta, medikamentuak eta bestelakoak behar dituzte. Bilketa asteburu osoan egingo da.

JENERO XUMEKOAK

Ofelia

Ofelia, nenufarik tristeena. Edertasuna bait da hiltzekoa lehen-lehenik.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.



Altsasu

Santa Ageda gaurtik aurrera

PATXI ULAIAR / ALTSASU

Urtean zehar egiten den festarik handienetakoa ospatuko da Altsasun gaur hasi eta bost egunetan zehar. Santa Ageda, izan ere, bertako ospakizun berezietakoa izateaz gain, erakargarriena ere bada altsasuarrendako, eta hori asko esatea da festak hain barnetik bizi duen Burundako herrian. Aurten berezitasun handia izango du Santa Agedak, hainbat urtetako borrokaren ondotik, neskek ere parte hartuko baitute ospakizunean.

Santa Agedaren ospakizuna Burunda osoan egiten zen lehen, eta Urdiain edo Etxarri-Aranatzen sona handikoak ziren duela gutxi arte. Denboraren poderioz, baina, Altsasuk eutsi egin dio festari, beste herrietan, ezarian ezarian ahuldu egin bada ere. Hasieran emakumeen inguruko festa izanik ere, soldadutzarekin lotu zen ondoren, eta urte horretan armadara joan behar zutenek —kintoek— bereganatu zuten ospakizuna. Nesken partehartzea urria zen, mutilei oparitzen zizkieten opilen banaketan eta kafean besterik ez baitziren egoten.

Azken urteotan, baina, partehartze handiagoa izateko borroka hasi zen, eta urtero bilerak egiten



Astoa berrito aterako da kaleetara.

ziren mutilen eta nesken artean, festa batera ospatzearen. Urtero huts, alabaina. Aurten izan ezik. Azkenean denek modu berean gozatzeko erabakia hartu dute, eta elkarrekin egingo dute festa.

Gaur hasiko dira festak, hainbat egunetan zortzikoak eta bes-telako dantzak ikasten aritu ondoren. Kintoak koruekin batera aterako dira gaur kalera, toki be-

rezietan dantza egiten eta kalejiran zehar, eta bihar, larunbata, diru bilketa izango da, neskekin batera. Herri osoan zehar ibili bitartean, Errege egunean aukeratutako erregeek nesken etxeetara joan eta beraiek egin edo erositako opilak bilduko dituzte. Horiek gero herriko jauntxoei salduko dizkiete, dirua biltzeko. Izan ere, ez baita maka-

la egun hauetako gastua. Bazkariak, gosariak, txistulariak, musika eta gainontzekoak, aurten, ia bi milioi pezeta kostako dira, eta diru franko bildu behar horretarako. Arratsaldean, jaso beharrekoa jasota, zortzikoak dantzatzeari ekingo diote gazteek herriko plazan, banan-banan, eta horrela jarraituko du igandean, eta hurrengo asteburuan ere.

Donapaleu

Nafarroa Behereko Erakustokia handi liteke, Urrutibeheti jaunak dioenez

I. ETXETAHARRETA / BAIONA

Donapaleun, Herriko Etxearen sahetsean den Nafarroa Behereko Erakustokia handitu egin liteke, Clement Urrutibeheti medikuak jakinarazi duenaren arabera.

Donapaleun kokatzen baldin bada Erakustoki berezi hori, du-darik gabe da Clement Urrutibeheti medikuaren lan etengabea gatik Nafarroako historia edo Santiagoko bideen inguruan. Ofizioz mediku zena Donapaleun eta gaur erretiratua denak bere ikerkuntza lanak jarraitzen ditu.

Joan zen udazkenean, bizian zehar Santiagoko bideak Nafarroa Beherean ikertu dituenak bere lanen bilduma zabala eskaini zuen liburu batean. Honek bazter hauen garrantzia azpimarratu zuen. Alabaina, Garruzetik Izurako bidea Europa osoaren bilgune gertatu zen, hor bide na-



Donejakue bidea izango da erakusketaren gaietako bat.

gusiek, Vezelay eta Le Puykoak batez ere biltzen baitziren.

Nafarroa Beherea horrela, ospitale, eliza, pausaleku, otoizgune bereziz betea da, Garruzetik Summus Pirinaeus zen Orreagaraino. Horren oroigarri, duela ho-

gei urte, Urrutibehetik jarri zuen harri diskoidal bat Donapaleu gaineko Salvatore zen Gibraltar auzoan.

Herriko Etxeak Donapaleun duela hamabost urte toki bat eskaini zion Urrutibehetiri. Nafa-

rroa Beherearen historiako puntu batzuen eta bereziki Santiagoko bideen inguruan egin zituen ikerketen agertzeko. Berrehun metro karratuko gela laster txikiegia gertatu zen altzari zahar, harri, argazki, eskultura edo esku izkribuentzat.

Gaur hutsa den etxe handiaren beste zati bat laster balia daitekeela agertu du Urrutibehetik. Horrela bereizi daitezke Nafarroaren historiako gaiak Santiagoko gaietarik. Lekua ere izan daiteke historiaurreko aberastasun batzuen agertzeko. Anartean erakustokiei buruz erakunde publikoek duten axola eskasa damugarri dela nabari da. Urrutibehetiren lanek aspaldian beste tratamendu bat merezi zuten. Nafarroako Gobernuak hainbat lan finantzatu dituenak bere ondarearen babesteko berdin ongi etorria daiteke Iparraldeko senide pobreaken laguntzeko.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Itsasgorak

Ortodoxoa izatera, ezin izanen nuke txoko honetan Jarauta kalearen inguruan deus idatzi. Zutabearen izenburuaren arabera Navarrieriako iturritik idazten dut, eta handik ezin da Jarauta kalea ikusi, ezta atzeritarrek Sanferminetan egiten duten bezala iturriaren puntaren puntaraino igo eta handik salto eginez ere.

Haatik, Jarauta kaleari buruz idatziko dut, dagoeneko aski ongi baitakit ez naizela batere ortodoxoa. Ortodoxoa izanen banintz, lerro hauetan asfaltoaren gailentasuna aldarrikatu eta gero ez nintzateke inoiz mendira joanen. Joan den igandean, ordea, San Donaton izan nintzen, eta oraindik ere pairatzen ari naiz heterodoxia ariketa horren ondorioak, agujeta gisa.

Heterodoxoa naiz, beraz, eta Jarauta kaleaz idatziko dut. Halaber, estreinakoz ikerketa kazetaritzaren fruituak ekarriko ditut zutabe honetara. Ikerketa sakon baten ostean, Jarauta kaleko Zulo tabernan zer demontre egin behar duten jakin dut. Tabernaren berritzearen inguruan sortutako zurrumurruak hemen amaituko dira.



Zurrumurruren arabera, Zulo taberna bakalao bidearen etapa berri bat izanen zen hemendik aurrera, Tele-Pizzaren egoitza berria, edota Tele-Potxas-ena (aurrekoaren bertsio euskalduna). Zuloako zerbitzariengandik oso gertu dauden informazio iturrien arabera, ordea, taberna hiru solairuko hiper-taberna izanen da. Hiperrak Iruferrian modan dauden honetan, Zulo 'hiper' aurrizkia ostalaritzara ekarriko du. Beheko solairuan kontzertuak egiteko eszenatokia izanen da, erdikoan barra biribildun taberna, eta goikoan ogitarteak.

La Calle, Giroa eta Katu tabernen oinordeko zuzenak, beraz, berrito ere bere atek irekiko ditu aurki, inoiz baino handiago. Aurki, Navarrieria plazako iturriaren inguruko tabernetan ez dira Jarautako etxerik gabeko umezurtzen itsasgorak jasan behar izanen.

Kontrabandoa Nafarroako beste bizi-modu bat izan dela bistan da. Denen ahotan dago, behintzat, ohi denez, inork ez baitu horretaz gehiegi solastatu nahi. Baztanen bereziki, baina baita Malerrekan eta Bortzirietan ere, urte frankotan, «betidanik», izan da mugak kontrolik gabe gainditzeko saiorik, eta orain ere bada. Mendiko lan honetan urteetan ibilitakoak harrapatu genituen Donamarian, eta haiekin solastatzeko parada ez genuen alferrik galdu. Inazio eta Santiago Inda ederki ezagunak baitira inguruan, eta erakutsi zigutenez, zer kontatu franko bazuten, nahiz eta gauza asko kolkorako gorde. Aziendarekin eta paketerekin bizitakoak, mendian barna goardiekin topatu ondorengoak, portugaldarrekin izandako istiluak... Ilargia lekuko zenekoak bildu ditugu hemen, nahiz eta, akaso, ez oso xuxen. Baina bada errealitatearen puxka bat. Haiek ere beren puxka kontatu baitzigu-ten.



Uxarreko afaria.

JOXE LACALLE

Ilargia lekuko zenekoak

A. BARANDIARAN / DONAMARIA

Donamariako Uxarrean ez da aditzen behetiago dagoen burrunba. Ituren eta Zubietan inauteriak, eta jende saldoak. Uxarretik soilik arrastiriak eskaintzen duen kolore paregabea —moregorrixka liluragarria— sumatzen da, dorreak zerualdean bere ertzeak pintatzen dituelarik. «Hemen aspaldian egiten zen inauteria, baina etxez etxe eskea, bertzerik ez». Donamaria, kontrabandisten lurra. Malerreka osoa eta Baztan edo Bortziriak bezala. Gaueko lana eta ilargia lekuko bakarra.

Argazkilariak zeruan pausatu diren argien jokoa eta filtroei buruz pentsatzen duen bitartean, Santiago heldu da bentan arrastiriro duten zitara. Afaltzera. Hortik guttira, Inazio anaia. Indatarak. Giroa berotu behar eta haiekin afaltzera. Haiek haragi gisatua, guk arrautzak magrekin. Gazta eta fruta. Kafea eta pattarra nahi duenarendako.

Tarraka-tarraka helduak dira beste herrikideak, denak afaltzera. Bi zirelakoan, azkenean denak kontrabandistak. Gaueko langileak. Mila komeria bizitakoak, aberastuak, txirotuak eta berriro aberastuak, haien esanetan. Batzuk erretiratuak, nonbait. Baina denek dute kontatzeko mila gauza, nahiz eta erdiaren erdia baino guttiago aipatu. «Poliziarren lagunak zarete?», Santiagok, maltzur. Bizitzaren zati ezkutua kontatu behar baitute.

«Hemen beti izan da kontrabandoa» dio Inaziok, «eta gurasoei ikusi izan diegu. Gure amaxiren aita eraman baitzuen preso Goardia Zibilak, hiru pakete sabaian harrapatu ziotelako. Beraz, atera kontuak: ehun urtetik goiti, gu ere zahartu gara eta...». Inguru honetan gehienbat aziendarekin lan egin dela diote, eta tarteka patekeak eta portugaldarrak. Lan aunitz baina, hala ere, arriskua. «Alkoztar batzuk, koinatua eta bi anaia, urtebetean mila behi ekarri zuten, eta kontuak atera, eta batzuk hilak, bertzeak galdu... eta azkenean dirua galdu».

Izan ere, jarioa handik honata zen. «Aldudetik ekartzen zen gehiena, eta Saratik ere bai. Bideak, denak erabiltzen ziren: Saiotik, Belatetik, Otsondotik, eta hortik Errekara edo Ultzamara... Hemen harat, deus gutti, hemen ez baitzegoen zer eraman». Gainera, merkeagoa zen bertaldez, eta sosen kanbioak ere laguntzen zuten. Guttu ez balitz, haragi hobe, antza. «Behi tuberkulosoak ekartzen aritu ginen bolada batean» dio taldera elkartu den hirugarrenak, «eta erraten ziguten 'Zer ari zarete Espainiara eramaten behi tuberkulosoak?'. Eta guk erantzun: 'Guk txorizoak egiten ditugu haragiarekin, eta berriro

Frantziara bidali'».

Inazio da gehien solastatzen dena, eta Santiagok soilik batzuetan hartzen du parte, beti zuhur. Bitartean, beste hiru auzokoak elkartu zaizkigu, eta adi-adi daude solasaldira, gisatua jaten duten bitartean. Azkenean, denak kontrabandistak, denek baitute pasadizoren bat edo beste kontatzeko.

«Ultzamarrak eta leitzarrak ziren nagusiak, eta Baztanen ere aunitz, hemen baino gehiago». Denetarik ekarri, baina hasieran ardi ilea aunitz. Zakukada. «Bizkarrean eramaten genuen. 30-35 kilo, eta zaku bete bizkarrean jarri, eta bestaldera eraman, han gutti baitzen. Hamar duro ordaintzen zuten orduan kilo». Ondoren behiak eta idiak izan ziren, mandoak eta behorak, eta geroago aretzeak. «Horiek orain hasi dira,

duela 10-12 urte». «Behorra asko pasatu zen orduan» azpimarratu du Santiagok, «Erriberan eta Etxauri aldean etxe guztietan 10-12 azienda baziren. Traktoreak geroago sartu ziren, baina orduan behar zen azienda aunitz».

Gaueko lana, beraz, oparoa, eta baita bigilantzia ere. «Orain baino gehiago». Goardia Zibilak eta karabineroak ziren orduan, eta azken hauek arduratzen ziren

mendien bigilantziak. «Herri guztietan baziren goardiak garai hartan, eta Elgorriagan, Sunbilla, Donezteben eta Arraiozen baziren koartelak. Baina Goardia Zibila ez zen ateritzen mendira, hori karabineroek egiten zuten. Batzuk ateritzen ziren punta batetik eta besteak bestetik, eta mendian ibiltzen ziren, oinez». Eta topatuz gero? «Topatuz gero, utzi eta martxa egin behar. Haiendako paketa eta zurendako lasterra».

Gerra aintzineko urteetan, gainera, ondokoetan baino gogorragoak omen ziren, eta hain erraz ez zirela saltzen dio Santiagok. «Karabineroak saltzea oso arraroa zen orduan, nahiz eta gutti kobratu. Gerra ondoren, baina, denbora txarrak ziren, nagusi berriak heldu ziren, eta errezago saltzen ziren. Lehen ez zen haiekin konpontzerik». «Jotzera tiratzen zuten ordukoek» dio afaltzera hurbildu den horietako batek, «eta Arraiozko bati, Bertizen, hiru tiro tiratu eta izterretik sartu bat». Orain, baina, orduko bigilantziarik ez dagoela aitortu dute denek. «Orain karreteran, baina mendian ez da».

Mendian eramateaz gain, ugaldea pasa behar, eta horretarako sokak eta erabiltzen zituzten. «Ur handia izanik ere, handik pasatu behar. Horretarako toki onak ziren Narbartekoa, eta Oieregi ondoko Erreparatzeko zubia ere. Orduan soka erabiltzen zen, eta bertze aldera soka bota eta horrela pasatzen ziren aziendak

eta paketeak ere».

Paketeak Baztanen aspaldian erabiliak baziren ere, 50eko hamarkadan hasi baitziren Male-rrekan. Gehien ekartzen zena, puntillak, kobrea, orratzak, orraziak, goardasolak, abarkak eta botoiak. Eta bizikletak. «Behin» dio Inaziok «etxetik ateri eta Kasketxera joan nintzen. Han gosaldu, eta argitu zuenean, ezkutatatu. Gero, arrastirian, Aldude aldera. Bertan hartu bizikleta, desmontatu, bizkarrak hartu, eta buelta. Gaur milaka bizikleta ekartzen dituzte kamioietan...».

Bidean harrapatzen zena, subastara ateratzen zen, «eta askotan guri ere pagatu, eta berriro erosi behar subastan». Subastak Elizondon, Iruñean, eta Donezteben egiten ziren, eta azken honetan ia egunero egiten zela gogorarazi dute. Asko pasatzen zen seinale. «Pasatzen zenaren hamarretatik bat harrapatzen zen» dio Inaziok. Hala ere, lana montioka, ez baitzen ez iganderik, ez bestarik.

Eta gogorra zela, ezin uka. «Egunean lo egiten genuen, eta bustia bazinen, zoluan sartu, belarrean ongi sartuta, eta hantxe, geldi. Mandoa borda barrenean». «Gu Lizason egon ginen behin» dio Inaziok, «elurra aunitz, eta galtzak paratu gabe, hormatzen baitziren. Orduan, meta urratu, eta azpian hiruzpalau ezpal paratu, eta gero hori tapatu. Txerriak bezala ibiltzen ginen». Horretarako hantxetako onena espartinak eta abarkak. «Katiuskak jantziz gero, bustitzen bazinen, ez zegoen horrekin ibiltzerik». Eritasun edo katarrotik ez, baina. «Orduan ez zen katarrotik. Orduan ez zen ezta mukurik ere».

Inguruan herri gehienak ari-

tzen ziren mendiko lanean, baina zenbait tokitan urriago, Zubirin eta Iturenen, kasu. «Sunbildarrak ura pasatzen aritzen ziren, bertzeek ez baitzekiten nondik pasa. Eta haiek egiten zuten lan hura. Eta kobratu, jakina». Gero, bestaldetik ekarririk Eratsunera saldu, «han tolarea genuen, eta azienda biltzen ginen», eta handik leitzarrek edo Ezkurrakoek eramaten zuten Iruñera.

Portugaldarrekin ere komertzio handia izan da inguruan, na-

Galdu da mendiko lana. Orain kontrabandoa ere bada, baina beste moduan egiten da. Lan ttikirik ez da».

hiz eta hor «gutti» pasatu dela dioten. «Hori zen zailena, sobera jende ez baita gauza onik». «Jende asko, gainera, engainaturik heltzen zen, bi orduz ibili behar zutela eta. Gero agertzen zen elurra, ura pasatu behar, eta mila kontu». Hori bai, diru gehiago kobratzen zen, «kobratzen zenean». «Nik eraman izan ditut Oronozko zentralera 12 portugaldar, eta ez zutela erreka pasatu behar» dio auzoko batek. «Han gelditu ziren, eta banan-banan, bizkarrean hartuta, denak pasatu behar izan nituen. Behin Iruñeko Yaben jatetxean elkartu nintzen 25 urte lehenago nik pasatu nuen batekin. Eseri nintzen bere ondoan, eta galdetu nion nola etorria zen, eta berak erran mutiko batekin pasatu zuela, trenbidetik, eta mutikoak eskuetan zeramala

bizikleta. Ni nintzela esan nionean, izugarritzko poza hartu zuen gizonak».

Pasatako garaiak dira, nolahi ere, ordukoa bukatu, bukatu baita. «Orain ez da kontrabandorik» dio Santiagok. «Galdu da mendiko lana. Orain joaten zara Frantziara, erosten dituzu lau behor, eta ekartzen dituzu kamioi batean. Kontrabandoa beste modu batez egiten da: kamioi bi ekarri, eta bat deklaratu, edota bi bidaia egin baimen batekin». «Kontrabandoa beti izan da, gero ere izanen da, eta orain ere bada» berretsi du Inaziok, «baina lan ttikirik ez da». Lan ttikia eta irabazi handiak, antza, kontrabandoi esker herri asko altxatu direla esan izan baita beti. Indatarrek, baina, «kitto» egin dutela diote, ironiaz. «Batzuek ez kobratu, bertzeek ez pagatu, hola».

Pilak ia akituta, Ameriketako kontuak hasiak dira aipatzen, kontatu nahi zutena kontatu baitute ordurako. Belaten barna abiatuta, hainbestetan zeharkatutako bideak ez dira ageri ilunpean. Nahiz eta gaua eta ilargia horretarako onenak izan.



Inazio Inda.

JOXE LACALLE

Hamaika komeria

A. B. / DONAMARIA

Berrogei urte inguru lanean emanda, arriskua eta trantze txarrak ere igarotakoak dira Indatarrek. Santiagok dioenez, kontrabandoa, lehen, oraingo krimen bat baino gogorragoa zen, «eta harrapatu orduko bost edo hamar urte egon zintezkeen kartzelan, preso».

«Nik hiru egun ditut pasata Urdazubiko koartelean», azaldu du Inaziok, «behor batzuegatik. Banituen behor batzuk Otsondon, eta hara joan nintzen ikustera. Heldu, eta bat-batean Land Roverra, eta 'zer egiten duzu hemen?'. Handik guttira frantses kotxe bat, eta konturatu nintzen gure semea Jose Inaziok alde egin zuela. Orduan hasten dira galderak frantsesei eta neri, eta dena gezurra. Haiek esaten zuten kaka egitera joanak zirela, eta ez zutela ikusi bestea alde egiten. Azkenean, denak Urdazubiko koartelera. Hasi ginen dena erran, dena gezurra, eta haiek apuntatu, eta horrela egunak, eta eguerdian erran nien: 'Hemengoek ez dute jaten, ala?' eta haiek baietz, eta txuleta ogi tartean eman ziguten. Azkenean, eman zidaten sei ordu libre, paperak konpontzeko, eta bihamunean handik atera, eta paperak konpondu, paperak sakelean bainituen, eta handik atera eta goardia-ekin bazkaltzera joan, eta hark pagatu».

«Bertze batean, duela 15 bat urte, kamioia harrapatu zuten Olaguen, 58 aretzekin, eta han hasi zitzaizkidan goardiak, erra-

teko nongoak ziren. Eta nik, '34 nereak dira, eta badauzkat gidak, eta bertzeak hemen inguruan eta Iruñean erosiak'. Eta haiek sinistu ez. Goizeko hiruretan, eta han sei goardia, gero zazpi, zortzi, eta erraten zidaten 'Ostia akitu arte emango dizkiagu...' eta nik, 'denen artean...'. Eta haiek ea nongoak ziren, meheak eta txarrak baitziren. Eta nik erosiak zirela, baina jaten ez niela ematen. Goizeko lauretan, azkenean, koponbidea eskatu zidaten, eta nik baietz. Baina 700.000 pezeta es-

jantzita, eta dena kontatu zidan, nola atzetik segika genituen batzuk, eta nondik heltzen ziren eta guzti».

Santiago ere horrelakoak edo gogorragoak pasatakoa da, eta behin gutxigatik libratu zen etxean bertan. «Goardia Zibila etxe inguruan zebilen, eta etxera sartu ere, baina ez ninduen topatu. Azkenean, etxe barrenean, karro batean sartu, eta gainean gorrotz pila. Eta karroa atera etxetik, behiarekin bakarrik, eta Goardia Zibila konturatu ez. Aldudera alde egin nuen». Beste behin, mendian bertan egin zuen topo goardiakin. «Iruitako errekarra heldu nintzen behor batzuekin, eta bidean bi goardia: 'Nondik heldu haiz?' eta nik, 'Kintotik'. Eta sakelan bilatu, eta sakelan frantses sosak. Behorrek kendu eta nik martxa».

Portugaldarrekin ere hamaika ikusitakoak dira, eta Legasako mutiko batzuei gertatutakoa kontatu du Santiagok. «Baziren bi anaia, bat buru nahasitakoa, eta portugaldar batzuk eraman zituzten behin. Eta hasi ziren menditik gora, eta nekea eta gosea, eta goizeko laurak aldera hasi ziren portugaldarrak haiek ere afaldu nahi zutela esanez. Eta buru nahasitakoak, nonbait, portugaldarra jo, eta alde egin zuen herrira. Anaia jaitsi zen bere bila, eta han zebilela su egiten eta, eta portugaldarrak berriro topatu zituen, batek labana eskutan hartu, eta sabela urratu. Barrukoak atera zizkion, eta mutikoa Legasara heldu zen barrukoak eskuan zituela».

Goardia Zibila etxe inguruan zebilela, karro batean sartu, eta gainean gorrotz pila paratu. Etxetik atera zen behia, eta haiek konturatu ez».

katzen zizkidaten, eta nik diru hori ez nuela. Ez han ez etxean. 250.000 pezeta banituela etxean».

«Etxera heldu ziren azkenean, eta kafea eta anisa atera nien, baina haiek beldur ziren kapitana etorriko ote zen Iruñetik. Neukan dirua jaitsi eta gainontzekoa hurrengo egunean emango niela erran nien. Baina haiek fidatu ez. Argitua zen ordurako, eta azkenean alde egin zuten. Hurrengo egunean Donezteben gelditu nintzen kaboarekin, bera paisanoz




Santiago Inda.

JOXE LACALLE



XAKEAN



Iruñea Hiriko Torneo Irekieren 7. Jardunaldiko partida. 1994ko urtarrilaren 3an jokaturia.

S. Kovacevic-Ander Gamez, 2.135 ELOkoa (Euskal Herria).

1.d4,Zf6; 2.Zf3,g6; 3.c3,Ag7; 4.Ag5,0-0; 5.bZ-d2,d6; 6.e4,Zc6; 7.a4,a6; 8.Ad3,e5; 9.e5,Ze5; 10.Ze5,e5; 11.Zc4,De7; 12.0-0,Gd8; 13.Dc2,h6; 14.Ah4,g5; 15.Ag3,Zh5; 16.Zc3,Zf4; 17.Ac4,h5; 18.f3,Ae6; 19.Ae6,De6; 20.fG-d1,Af8; 21.Eh1,h4; 22.Af2,Ac5; 23.Zg4,Af2; 24.Df2,Db3. 'De7' egokiagoa da egoera kontrolatzeko, damaren zutabeagatik borroka horretan.

25.Gd2,De6; 26.aG-d1,Gd2; 27.Dd2,Eg7; 28.Dd7,Ge8; 29.Ze3. 'Dc7' jokaldiak 'Db3' erantzuna zuen, arrisku pitin bat sortuz. 29...Dd7; 30.Gd7,Gc8; 31.g3,g3; 32.g3. Ikus koadroa. 'Ze6' eginen balu, konponbide gutxi, 'b5' eta 'Zg4' jokaldiengatik. 'Zg6' alferrik da, zaldiak 'd5', 'b6', 'c4', 'd6' laukiak jokatzeko dituelako.

32...Zh5; 33.Eg2,Zf6. 'Eg6' jokaturia, 'Zd5' eta 'Ze7' erabakigarriak dira. 34.Ge7,Gd8; 35.Ge5,Gd2 xa; 36.Eh3,g4 xa; 37.Zg4,Zg4; 38.Eg4,Gb2; 39.Ge7,c6; 40.a5,Gb5; 41.f4,Ga5; 42.Gb7,Gc5; 43.Ga7,Gc3; 44.Ga6,c5; 45.Gc6,c4; 46.e5,Gc1; 47.Gc7,Eg8; 48.Eg5,c3; 49.Ef6,c2; 50. Gc8 xa,Eh7; 51. Ef7. Gaztelua jokatu behar izateak partida uztera behartzen du.


Haize erauntsi zakarrek kolpatzen zuten Arizonako basamortu lehorra. Urik gabeko paraje mingots horietatik ibili ohi ziren muga inork ikusi gabe igaro nahi zuten iheslari bakartiek. Haietako batek egunak zeramatzan baraurik, White Cityko xerifa atzetik zuelarik. Birro McZeril zuen izena.

White Cityko banketxea ostua zuen astebe lehenago eta 15.000 dolarretako saria banatuko zen hilik nahiz bizirik harrapatzen zuenarentzat. Zorigaitzoko basamortu horretan satu beharra izan zuen xerif madarikatu horren erruz, eta egarriz hiltzear zegoen Birro. Hala ere, dirutza ederra berarekin zeramala oroitarazten zion buruari aurrera jarraitu ahal izateko.

Egarriaren ahuldadeak eraginako zalditik erori behar zuela uste izan zuenean, enparaturik sentitu zen. Han, haize bortitzek bustitako arearen zurrumbiloen erdian, taberna bat zirudiena altxatzen zen, estarbidun eraikuntza bat, bi pisutakoa.

Eraikuntzaren parera iritsi zenean gorputzean zituen indar apurrak bildu eta zaldia estarbian lotu zuen, gero pauso geldiz, ateruntza joateko. Ateari eragin, eta taber-

Wenster bat



Aitzol Lasa

BARAÑAIN

nara sartu zen, bere bizkarretara danbatekoak entzuten zituen bitartean.


Taberna hutsik zegoen, barmana eta Birro bera kenduta. Egarrria nahiz gosea barretu ahal izan zituen, eta berriro abiatzekotan zegoenean oin hotsak entzun zituen kanpoaldean. Berezkotasunez eskua gerrikora eramane zuen baina berehalakoan gogoratu zuen errebolbera galdua zuela.

Ihesbideren bat aurkitu beharrean zegoen. Beranduegi. Xerifak jadanik atea zeharkatu zuen.

Beren begiradek bat egin zuten. Eskena barregarria otu zitzaion barmanari. Benetan beltzak ziren, baina lohiarengatik marroiak ziruditen bota luzeak, kolore bereko galtza nahiz jaka eta kapela grixa zeramatzan. Jaka azpian zeukan alkandoran legegaren bozeramaile bezala aurkezten zion izarra zegoen. Aurpegia guztiz zurbil zeukan, ezpainak urraturik, ahoa erdi irekirik, eta begirada ezerezean galdurik. Arnasa hartzarekin soinu lehorra ateratzen zuen eta pauso bat ematea esfortzu itogarria baltiz bezala zebilen.

Hauetako batean, beste bi gizonak begira zituela xerifak toteldu zuen:

—k... kom... komuna..., mese... dez?



Haurriltzea Bertizen

Pascual Madozek zioenez, Nafarroan inon baino hilketa gehiago burutu zituzten gaizkileek XIX. mendean. Hala ere, kontsolatu nahian edo, Nafarroan ez zela ezagutzen ez parrizidiorik ez haurriltzerik dio, eta gizon bat besterik ez zutela pozoindu. Haren ustez, hauek ziren delikturik gaitzesgarrienak, eta horretan Nafarroa ez zen ibilia. Hona hemen bada haurriltze bat, Oieregin gertatutako XVI. mendean. Irakurlea minbera bada, nahigabe daiteke. Jakinaren gainean zaudete. Informazio iturria 'La muerte en Navarra a traves de los siglos'

Fernando Videgainarena da.

Sarraskia Bertizen gertatu zen 1613. urtean. Juan Sarrateko jenio txarreko pertsona zen. Bataz beste gizon bati burua erdi-erditik ireki zion igitai batez eta Oieregiko apaiza ere behin baino gehiagotan hiltzear egon omen zen. Bertizen apaiza zen eta bere lehengusina Audadiko Maria neskame joan zen hara. Egunak joan, egunak etorri, neskamea haur esperantzan geratu zen. Inude batekin eman zituen lehendabiziko hilabeteak haurrak. Etxera etorrita, aitamek mutikoa akabatzea erabaki zuten. Hasieran mutur joka, zimatik

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atea joka

Beste batean amak sabaitik buruz behera eskegi zuen haurra. Dena alferrik. Itxurazko hilketek ez zuten balio.

tiraka eta txatxamurka. Ez zuten deus ere erdietsi. Behin ipurmasaila erre zioten, ea hortik herioa eragin ziezaioketen, baina apezka apaintzera etorri zen bizargina mutikoaren negarrez ohartu, bahitu eta sendatu egin zuen. Beste batean amak sabaitik buruz behera eskegi zuen. Dena alferrik. Itxurazko hilketek ez zuten balio. Garbi eta argi akabatu beharrekoa zen haur gaxoa.

Otsailaren gau batean, apaiza Oieregiko parrokoarekin solasean aritzen zen bitartean, amak Bidasoa ugaldere bota zuen haurra Erreparatzeko zubitik. Goiz-goizik lanera zihoan neskame batek hotzak akabatzen aurkituko zuen

haurra, baina bizirik, eta haren gurasoengana eramane zuen. Hurrengoan ez zuten kale egingo. Errezeta errazaz baliatu ziren. Morroia ogitara igorri, apaiza meztatara, eta amak haurra laurdenkatu zuen. Garai hartan Inkisizioak inguru hortan zenbait sorgin atxilotu zituen. Hori zela bide, amak hilketa sorginen bati aurpegiratu zion. Deabruaren eskua hortik zebilela sendagileari esan eta afera ez plazaartzeko agindu zion. Baina beranduegi zen. Herri osoak bazekien nor zen hiltzailea. Ama Iruñeko espetxean hilko zen eta aitari eragile izanaren kargua leporatu arren, libro irten zen.


Matxin: bufoia edo horrelako zerbait' dio bere propagandak, eta hala da. Ezin asmatu zer den: pailazoa, mimoa, bufoia, antzerkigile halaholakoa... Duela bost urte hasi zen mundu honetan, eta horretarako 'helduegia' bazen ere, bere estiloa eskuratzen ari dela dio, 'Matxin estiloa', hau da, inprobisazioaren estiloa.

Inprobisazioaren erresuman

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Ez da ohizko antzerkizale horietakoa, taula gainean eta jendaurrean aritzea barru-barrutik sortzen zaienetakoa. Berak kazetaria izan nahi zuen gaztetan, baina oposizio batek eragotzi zion, Bartzelonan ez baitute barkatzen katalanez ez jakitea. Orduan etorri zen Iruñera, eta irakasle lanetan hasi zen. «Hemen zeuden beste tokietan inork nahi ez zituenak». Eta gustura ekin zion lanari. «Haurrak asko gustatzen zaizkit, eta sumatu nuen haiekin lotura berezia baze-goela, ongi moldatzen ginela elkarrekin. Ez nuen ezer ikasi, baina haurrak oso gustukoak nituen».

Lan kontuek, ordea, beste itzuli bat eman zioten bere bizitzari, eta lanbidez aldatzea bururatu zitzaion. «Oso arazo gogorak izan nituen lanean, eta orduan etorri zen Peter Roberts mimoa irakasle ikastaroa ematera. Eta jendeak esan zidan: 'Hi, baina bizitza osoan antzerkian eman duala ematen dik', eta orduan



Duela bost urte eskas hasi zen Matxin komikoen munduan.

JOXE LACALLE

iruditu zitzaidan hori izan zitekeela bide polita».

Robertsen 'Ixiltasunaren artea' liburua hartu, ikasi eta lanean hasi zen, duela bost bat urte. Haste-hastetik konturatu zen, ordea, beranduegi hasia zela artearen munduan, eta horrek aldekoak eta kontrakoak zituela. «Nik ordura arte ez neukan inolako harremanik antzerkiarekin, eta epez kanpo hasi nintzen mundu honetan, beteranoegi beraz. Hori bai, antzerkia nirekin

ikasten zuten neska-mutikoenik neukan esperientzia ez zuten, eta horrek abantaila ematen zidan haien aldean. Antzerkiak gauza askoren erantzuna eman zidan, beste neska-mutik bilatzen ez zuten galderen erantzuna, hain zuzen ere. Nik ordurako banekien zergatik egiten nuen antzerkia, eta haiek ez».

Nolanahi ere, antzerkia eta mimoa egiteko modu asko daudden gisan, Matxinek berea bilatu

zuen. Eta komikoarena hartu. Komiko bakartiarena. «Ni berez oso indibidualista naiz, eta hasiera ere horrelakoa izan zen. Gero Bartzelonara joan nintzen, ikastera, eta konturatu nintzen honetan lan egiteko gai nintzela, baina bakarrik egin behar nuela. Gaur egun, behin ikastaro batzuk eginak, badakit talde batekin lan egin dezakedala, baina, beti ere, bakarkako lana nahia-go».

Orain arteko lana toki guztietan —tabernak, ikastetxeak, plazetan— eta mundu guztia-erendako —haurrak zein helduak— egin baditu ere, badauzka gustukoagoak. «Tabernetan, kasu, ezin da giroarekin hautsi. Ezin da teknika handirik sartu, jendea beste gauzetan baitabil. Beraz, helburua da jendea zeureganatzea eta giroa sortzea, baina gehiegi erakarri gabe. Antzerki batean desberdina da, errazagoa baita jendea erakartzea. Jendea horretara propio joana da». Zailena, nolana ere, plazetan, librean. «Kalean ez dut oraindik lortu jendearen arreta neureganatzea, baina hori da benetako tokia. Kaleak dena erakusten baitu».

Zein da komikilari baten azken helburua? Irria edo txaloea? Matxinendako, irria. «Ez nabil txaloea bila. Helduek gehienbat kortesiaz txalotzen dute, eta haurrek, txalotzen dutenean, bai, izugarria da, baina nik irria nahi dut, irria eta komunikazioa jendearekin. Giroa sortzea dut gustuko, lasai-lasai egoteko».

'Matxin estiloaren' bila

A. B. / IRUÑA

■ Pailazo, komiko, antzerkigile, bufoi, mimo... denetarik bada Matxin. 'Matxin estiloa' sortu nahi baitu, finean. Mundu horretan berandu samar hasi izanak badu, nonbait, zeresanik aukera honetan. «Nik izan nuen irakasle batek —Peter Gadish pailazo hungariarra— esan zidan hasi berria nintzelarik: 'Heure gorputza eta heure burua nor bere aldetik zihoazek, bereizturik. Eta hain berandu hasi haizenez, ezin duk gauza asko ikasi. Beraz, heure estiloa bilatu behar duk'. Eta nerendako, pailazoaren gauzarik garrantzitsuen inprobisazioa da».

Hasieran kostata lortu zuen inprobisazio hori, egun, bere la-

naren funtsa da. Horregatik, esketxak ez dituela sobera prestatzen dio. «Beti bada ildo bat, baina egunero gauza bera egitea oso aspergarria litzateke, eta inprobisazioa da funtsa. Jakin beharra dago irekitzen zaizkizun ateak zeharkatzen, bestaldean dagoena ikusteko».

Bere ustetan, pailazoak haurraren rola hartu behar du. «Haur batek ez du iraganik. Beraz, rol bat hartu eta abioi bat dela esaten badiozu, erraz sinestuko du. Txori bat dela esaten badiozu, berdin. Horrek izugarriko aukerak ematen dizkio pailazoiari eta, beraz, berak ere sinestu behar du horretan. Helduok badugu iragana, eta gure buruak tarteko asko dauzka errotuta: heziketa, erlijioa». Hala ere, paila-

zoarentzat haurrak zailagoak dirrela dio. «Egiten ari zarena ez bazaie gustatzen segituan hasten dira ondokoarekin hizketan, oi-huka edo txistuka, eta oso kritikoak dira».

«Vittorio Gassman aktore italiarrak esaten zuen asko gozatzen zuela gidoitik kanpoko zerbait sortzen zenean, eta aktore gehienek beldur diote horri. Baina hori da benetan zoragarria, eta pailazoak prest egon behar du horri erantzuteko». Halaber, bere lanean gizartearen aurrean kritika badagoela azpimarratu du. «Gizarte hau ez dut gustuko, eta pailazo handi batek esaten zuen pailazoa izatea, hain zuzen ere, bizitzaren aurrean jarrera bat zela. Pailazoei askatasuna eta justizia gustatzen baitzaigu».



Iruñeko taberna batean egindako saioan.

«Sadarren eskuratu nuen txartela»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Selekzioan aritzeko halabeharrez Osasunatik kanpo jokatu behar al duzu?

IÑIGO LARRAINZAR.— Ez dut uste. Nik iaz Osasun nire denboraldirik hoberena jokatu nuen, eta seguruenik Sadarren eskuratu nuen selekzioan aritzeko txartela. Clementek Sadarren zenbait partidu ikusi zituen, eta ni selekzionatzeko modukoa nintzela esan zuen. Athleticera heltzean joan naiz selekziara, baina agian hori kasualitatea besterik ez da izan. Dena dela, argi dago selekziara joan ahal izateko zuk ongi jokatu behar duzula, taldeak ongi jokatu behar duela, eta emaitzek onak behar dutela izan.

EGUNKARIA.— Hiru nafar aritu ziren selekzioaren azken partiduan, Goikoetxea, Bakero eta zu. Hirurok Osasunatik at jokatzen duzue. Ez al da hori aski esanguratsua?

LARRAINZAR.— Agian horrek Nafarroan jokalaria onak badaudela besterik ez du esan nahi.

EGUNKARIA.— Javier Clemente selekzionatzailea delarik, Athleticen jokatzeko selekzioaren atak errazago irekitzen al dizkizu?

LARRAINZAR.— Agian bai, Agian selekzionatzaileak zenbait talde gustukoak ditu. Dena dela, Clementek oro har jokalarien sasoiak besterik ez duela kontuan hartzen esanen nuke nik.

EGUNKARIA.— Espero al duzu uda Estatu Batuetan igarotzea?

LARRAINZAR.— Ez. Orain arte partidu bakarra jokatu dut, eta prestakuntza norgehiagoka besterik ez zen, ez zen ofiziala. Orain nahi dudana gauza bakarra da Athleticen gauzak ongi egitea, eta aurrerantzean ikusi egin beharko dugu selekzioaren deialdietan tokirik badudan ala ez. Dena dela, selekzioarekin berriro ere jokatze irrikan nagoela aitortu beharra dago.

EGUNKARIA.— Zer-nolako esperientzia izan da Osasunatik ateratzea?

LARRAINZAR.— Liga eta Kopako minutu guztietan jokatu dut, Bilbon gustura bizi naiz, eta selekzioan jokatu dut. Ezin naiz kexuka ibili.

EGUNKARIA.— Bilboko kaze-tariak, zale-tuek eta entrenatzaileak harriera ezin be-roagoa eskaini zizuten. Horretaz ere ezin zara kexatu.

LARRAINZAR.— Askok eskertzen diot entrenatzaileari hasieratik nigan izan duen konfiantza. Zinez eskertzen diot, eta berari hutsik ez egitea espero dut. Hori eskertzeko modurik hoberena zelaian ahal duzun guztia egitea da, eta horixe egiten ari naiz ni.

EGUNKARIA.— Zure egoera

dela eta kontent. Osasunaren egoera dela eta?

LARRAINZAR.— Oso goibel. Emaitzak aditzen ditudanean oso tristatzen naiz. Onak direnean ez, baina aurren kasik

Liga eta Kopako minutu guztietan jokatu dut, Bilbon gustura bizi naiz, eta selekzioan jokatu dut. Ezin naiz kexuka ibili.

guztiak txarrak dira. Gertu-gertutik segitzen ari naiz gertatzen ari dena. Ene irudikoz, gaitz guztiek jota egon dira orain arte. Batzuek aldegin genuen, etorri zirenek moldatzeko

denbora behar izan zuten, eta beste batzuek halabeharrez kirfanotik oasatu behar izan dute.

EGUNKARIA.— Askok Ibañez eta zu bezalako jokalarien kementa falta dela diote. Zer de-

ritzozu horri?

LARRAINZAR.— Etxeko jokariak agian kemen berezia du. Galtzeak min handiagoa ematen dizu etxekoa baldin bazara. Dena dela, taldeak oro har sufritu egiten du, eta kanpokoa denak gehienetan zuk adina sufritzen du. Agian etxeko jokalaria betidanik kementsua izan da, arraza berezikoa, eta zale-tuek aurren kemen horren falta nabaritu dute. Argi dagoena zera da, Osasun egun badaudela maila handiko jokariak.

EGUNKARIA.— Joan den igandean Sadarren itxaropena berreskuratu zen. Zure irudikoz, zer gertatuko da hemendik aurrera?

LARRAINZAR.— Jendea nahiko pozik dagoela ematen du. Zale-tuak kontent irten ziren Sadarretik, eta jokariak ere oso baikor daude. Nik batzuekin telefonoz hitz egitea izan dut, eta hori esan didate. Itxaropena berreskuratzea oso garrantzitsua da, eta nire ustez aurki sailkapenean gora egingen dute. Taldea oso ona da, eta duen maila kontuan hartuz aurrera egingen duela uste dut.

EGUNKARIA.— Martin bigarren entrenatzaile moduan eza-gutu zenuen. Zer moduzko lehen entrenatzailea iruditzen zaizu?

LARRAINZAR.— Bere buruarengan konfiantza handia dauka, eta argi eta garbi dakusa guztia. Talde ona duela uste du, eta taldea aurrera aterako duela ziurtat jotzen du. Hori jokariarentzat oso ona da. Berek behin baino gehiagotan hitz egin dut futbolari buruz, eta berak dituen ideiak asko gustatzen zaizkit. Denbora franko beharko du ideia horiek zelaian gauzatu ahal izateko, baina berari eta jokariei behar adina konfiantza ematen bazaie, aurrera aterako dira. Egoera oso latza da, eta halabeharrez guztiek elkarturik egin beharko dute aurrera. Jokariak, zuzendariak, zale-tuek eta entrenatzaileak batera ibili beharko dute.



XOUSE SIMAL

Iñigo Larrainzar

FUTBOLARIA



SOSLAIA

Amaren babarrunak faltan

Osasunatik Athleticera, eta Athleticetik selekziara. Hilabete gutxitan futbol munduan ibilbide luzea egin du Iñigo Larrainzar Navarrerria kaleko iruindarrak. Heldu den udan ibilbide are luzeagoa egin dezake, baldin eta Javier Clementek Estatu Batuetako Munduko Futbol Txapelketara eramaten badu. Denboraldi honetan kirol munduan aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu, eta horretaz harro eta kontent dago. Haatik, pozak ez dio herrimina guztiz ezabatzen. «Amaren babarrunak» faltan botatzen dituela aitortzen du. Halaber, Osasun utzitako lagun minak gehiago ikustea gustatuko litzaioke. Hori guztia eta gehiago kontatu digu Larrainzarrek ondoko elkarrizketan.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

